

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

#### **Alkatearen 2020ko urriaren 5eko dekretua, alkatearen eskumenak Livia Claudia López Gutiérrez zinegotziari eskuordetzeko**

Alkatearen 2019ko ekainaren 21eko erabakia zela medio, hainbat zeregin eskuordetu zitzaizkion Livia Claudia López Gutiérrez zinegotziari, Kirol eta Osasun Sailari zegokionez.

Gerora, López andreak amatasun-lizentzia hartu zuen, 2020ko uztailaren 6ko eraginez, eta hori dela eta, haren eskumenak Iñaki Gurtubai Artetxe jaunari eskuordetu zitzaizkion aldi baterako, alkatearen 2020ko uztailaren 3ko dekretuaren bitartez.

2020ko urriaren 5ean, bere zinegotzi-zereginetara itzuli da Livia Claudia López Gutiérrez, erabat, eta, hortaz, lehenago alkateak bere gain utzi zituen eskumenak berriro ere bere gain utzi beharra dago.

Kontuan izanik Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 124. artikuluan finkatuta daudela alkatearen zereginak, eta horietako zenbait —dekretu bidez— Tokiko Gobernu Batzarreko kideei eskuordetzeko ahalmena aitortzen zaiola.

Ikusirik Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 124.4, a, f, g; 124.5 eta 127.1.e, g, h eta I artikulua, baita Gasteizko Udaleko Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoaren 12., 40. eta 41. artikulua ere.

Xedatu dut

Lehen xedapena. Tokiko Gobernu Batzarreko kide Livia Claudia López Gutiérrez zinegotziari eskuordetzea zeregin hauek:

a) Udala ordezkatzea egungo Kirol eta Osasun Saileko zerbitzuen jardueretan —alkateari dagokion ordezkaritza nagusia gorabehera—, ekitaldi publikoetan nahiz beste instituzio, erakunde edo elkarteekiko hitzarmen edo harremanetan.

b) Dekretu, ebazpen eta jarraibideak ematea egungo Kirol eta Osasun Saileko zerbitzuen esparruan, baita egintza horien kontra bidezko diren errekurtsoak ebaztea ere, salbu eta lizentziei, kontratazioei eta gastuei dagozkienak eta zigortzeko ahalmena; izan ere, Tokiko Gobernu Batzarraren eskumenekoak dira horiek, eta, horrenbestez, hark eskuordetu beharko ditu, behar izanez gero.

c) Udal organo betearazleen erabakiak argitaratu, gauzatu eta bete daitezela agintzea, Kirol eta Osasun Sailari dagozkionetan. Tokiko Gobernu Batzarrak esleitutako kontratuak sinatzea, Kirol eta Osasun Sailari dagozkionetan.

d) Ordainketa-aginduak ematea eta ordainketak gauzatzea edozein bide baliatuz, eta kontaktaketa-agiri arruntak izenpetzea.

Bigarren xedapena. Indarrrik gabe uztea alkatearen 2020ko uztailaren 3ko dekretua, Livia López Gutiérrez andreaki eskuordetutako eskumenak goragokoak, Iñaki Gurtubai Artetxek, aldi baterako bereganatzeari buruzkoa.

Azken xedapena. Datoren egunean jarriko da indarrean dekretu hau, ALHAOn zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 5ean

*Alkatea*

*GORKA URTARAN AGIRRE*